

2018KO URRIAREN 8AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2018KO EKAINAREN 18KO ETA UZTAILAREN 23KO BILKUREN AKTAK).

2.- SASIETA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUAK ALDATZEKO PROPOSAMENARI BURUZKO ERABAKIA.

3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Maiete Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2018KO EKAINAREN 18KO ETA UZTAILAREN 23KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2018ko ekainaren 18ko eta uztailaren 23ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- SASIETA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUAK ALDATZEKO PROPOSAMENARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak, Sasieta Mankomunitateko Estatutuak aldatzeko jaso den proposamena azaltzen du.

Zentzu horretan, Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzarrak, 2018ko irailaren 24an egindako ohiko bileran, besteak beste, erabaki zuen aho batez, Sasieta Mankomunitateko estatutuak aldatzeko proiektua onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso ondoren.

Adierazitako erabakia, txostena eta helarazitako agiriak ikusirik.

Horren arabera, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 11. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Udalbatzarrak, legez osatzen duten bederatzikideetatik etorritako Zegama Lantzen taldeko bost kideen eta EH Bildu taldeko bi kideen aldeko botoekin, aho batez (legezko gehiengo osoz), honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzarrak, 2018ko irailaren 24an egindako ohiko bileran, onartutako Sasieta Mankomunitateko estatutuak aldatzeko proiektua onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Sasieta Mankomunitateari jakinaraztea.

3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 04/0918 erabakia, irailaren 19koa, Zegamako Ugarte Zelai 3 behe A kalean kokaturiko etxebizitzarekiko eta honen eranskinekiko Udalari dagokion eroslehentasun eta atzera egite eskubideari uko eginez.
- 05/0918 erabakia, irailaren 20koa, ezkontza bideratzeko ahalmena eskuordetuz.
- 06/0918 erabakia, irailaren 26koa, 9183 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.774,62 eurokoa.
- 07/0918 erabakia, irailaren 27koa, Ostatua eta Kasinoko fakturak onartuz.
- 08/0918 erabakia, irailaren 28koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa bideratuz.
- 09/0918 erabakia, irailaren 28koa, udal langileen nominak ordaintzea onartuz.
- 01/01018 erabakia, urriaren 1eko, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 02/01018 erabakia, urriaren 2koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa bideratuz.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), egurra ateratzeko lanak direla eta, landa bidean txikizio handiak egin direla adierazten du. Alkateak adierazten du lehen bezala edo hobea utziko direla.
- Alkateak, Gizarte Laguntzailearen baja egoera betetzeko ematen ari diren pausuen azalpena egiten du.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasozazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2018.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO